

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2016ko 3. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2016ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %3,0 hazi zen urte arteko tasan. Zenbaki hori aurrekoa baino bi hamarren beherago dago eta apur bat areagotu du dagoeneko bigarren hiruhilekoan hauteman zen moteltze arina. Beraz, bi hiruhilekoz jarraian gehikuntza erritmoa galgatu du. Hori horrela izanda ere, EAEko BPGaren hazkundeak duen sendotasuna azpimarratu beharrekoa da, udaberrian uste zena baino askoz ere biziagoa delako eta azken bost hiruhilekoetan gutxienez %3,0ko tasak pilatu dituelako. Bizitasun hori urrun dago europar herrialdeetan ikusten den ibilera motelagotik, non zaila baita %2,0tik gorako erreferentziak aurkitzea. Izan ere, Europar Batasunak, oro har, %1,9ko hazkundea eskuratu zuen, hirugarren aldiz jarraian, eta Euroguneak %1,7an egonkortu zuen bere erritmoa. Hiruhileko arteko tasen erkaketa ere EAEren aldekoa da, bertako hazkundea %0,6 izan zelako, Europar Batasunekoa %0,4 eta Euroguneakoa %0,3 izan ziren bitartean.

Aurreko hiruhilekoan kanpo eskariak BPGaren gehikuntzari hiru hamarren kendu bazizkion ere, hirugarren hiruhilekoan kanpo saldoak ekarpen positiboa egin zion ekonomiaren garapenari, bi hamarren ingurukoa. Hala esportazioak nola inportazioak bigarren hiruhilekoan baino gutxiago hazi ziren hirugarrenean, termino errealetan, baina erosketen moteltze handiagoak ekarpenaren zeinu aldaketa hori ahalbidetu zuen.

Barne eskariaren bilakaerak pairatu zuen apaltze nabarmenak eragin zuen inportazioen galgatze hori, bigarren hiruhilekoko %3,3 hartatik hirugarreneko %2,7ra igaro zelako. Bai kontsumoak bai kapital eraketa gordinak erritmoa leundu zuten epealdi horretan. Kontsumo pribatuak (%3,1) zertxobait gutxitu zuen bere bizitasun handia, baina berriro ere BPGa baino gehiago hazi zen, hainbat faktorek lagunduta, hala nola enplegu sorrera garrantzitsuak, ia hutsean dagoen inflazio batek, soldata nominalen gorakada txikiak eta ekonomiaren etorkizunean, baina bereziki norberaren familiarenean, piztu den konfiantza berrituak. Beste aldetik, kontsumo publikoa (%0,8) urteko lehen erdian jaso zituen gehikuntza handietatik urrundu zen eta moteltasun handiagoko itxura eskaini zuen.

Kapital eraketa gordinak (%3,1) pausu bat atzera eman zuen bizkortzeko ibilbidean eta hazkunde tasa gutxitu zuen, BPGaren datura hurbilduz. Bi osagaiak hartu zuten parte bultzada motelago horretan, baina bereziki erabakigarria izan zen gainontzeko inbertsioaren makalaldia (%1,6), bigarren hiruhilekoan erakutsi zuen susperraldia finkatu ez zuelako. Aitzitik, ekipamenduan eginiko inbertsioa %6,1 areagotu zen, aurreko lau hiruhilekoetan lortutakoa baino askoz ere txikiagoa baita, nahiz eta oraindik emaitza ona den. Ekoizteko ahalmenaren erabilera tasa altuak, interes tasa apalek eta ingurunekeko ekonomietarako dauden hazkunde igurikimenez atal horren gehikuntzan lagundu dute.

Sektoreen ikuspegi batetik, hiruhilekoaren ezaugarria bi jarduera talde nagusien, hots, industriaren eta zerbitzuen, arteko oreka berreskuratu izana da. Hain zuzen ere, hala sektore batek nola besteak BPGak markatu zuen %3,0 haren inguruko gehikuntza tasa jaso zuten. Eraikuntzak, berriz, nabarmen apaldu zuen bigarren hiruhilekoan eskuratu zuen ezohiko bultzada eta %1,9ko tasa jaso zuen, aurreko epealdietako geldotasunetik urrun. Aitzitik, bigarren hiruhilekoko datutik industrian ustez ondorioztatzen zen bortizki moteltzeko arriskua ez zen bete eta hirugarrenean goranzko joera berreskuratu zuen, balio erantsia %2,9 handituz, aurreko datua baino puntu erdi bat gehiago delarik.

Zerbitzuek bizitasun handiko irudia eskaini zuten berriro eta hirugarren hiruhilekoz jarraian %3,0ko langa gaintitu zuten, bigarren hiruhilekoaren aldean moteltze txiki bat bakarrik izan baitzuten. Hazkunde horren osaeran ia ez dago inolako aldakuntzarik, arlo pribatuari lotuago dauden jardueretan oraindik garrantzitsuagoa delako. Zehatz-mehatz adierazita, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %3,7 areagotu zuen bere balio erantsia eta administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituenak %2,4. Gainontzeko zerbitzuek %3,0ko tasa izan zuten.

Barne produktu gordinaren moteltze leunak ia ez zuten eraginik izan enpleguaren gehikuntzan, aurreko balioari (%1,8) eutsi ziolako. Tasa horrek lanaldi osoko 16.000 lanpostu baliokide inguru sortu direla adierazten du eta lanpostuen kopurua 900.000etatik oso hurbil utzi du. Kopuru hori 2012ko hasieran galdu zen eta oso litekeena da 2016ko azken laurdenean berriro berreskuratzea.

Prezioek gorakada txikia ezagutu zuten epealdi horretan eta BPGaren deflatoarea %0,4an kokatu zen. Halaber, KPI indizeak balio negatiboak atzean utzi zituen eta urrian %0,7 hazi zen urte arteko tasan. Tasa hori oso hurbil dago azpiko inflazioarenetik (%0,8) eta petrolioak ia guztiz utzi diola indize orokorra beherantz behartzeari adierazten du.


Koiunturako azken datuak kontuan hartuta, Ogasun eta Ekonomia Sailak hamarren bat igo du 2016rako eta 2017rako aurreikuspena. Gaur eguneko informazioaren arabera, EAEko ekonomia %3,0 haziko da 2016an eta %2,3, berriz, datorren urtean. Zuzenketa horren oinarrian, industriaren portaera aurreikusi zena baino zertxobait hedakorragoa izatea dago, gainontzeko sektoreetan azpimarratu beharreko aldakuntzarik hautematen ez den bitartean. Eskariaren ikuspegitik, bizitasun garrantzitsua aurreikusten da kontsumo pribatuan, baina inbertsioa haziko da gehien. Enplegu sorrera %1,7aren inguruan ibiliko da egonkor eta langabezia tasa %12,0ra hurbilduko da 2017an zehar. Azkenik, prezioek, bai BPGaren deflatoarea bai KPIa, goranzko bilakaera leunari eutsiko diote eta %1eko maila gaintituko dute 2017an, urte osoko batez bestekoan.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak aurreko hiruhilekoetako parametroei eutsi zien. Izan ere, argitaratu diren lehen zenbatespenen arabera, munduko BPGa %3,1 inguru hazi zen, aurreko hiruhilekoan beste. Halaber, 2016ko amaieran tasa bera lortuko dela aurreikusten da. Beste aldetik, eskura dauden adierazleek iradokitzen dute munduko merkataritza zerbait suspertuko dela eta inflazioak apal jarraituko duela, energiaren merkatzeak salneurrien ibilbidea galgatu dutelako.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



India



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Eurogunekoak ez diren ekonomia aurreratuen jarduerak goranzko ezustea eman zuen. AEBek sendo egin zuten aurrera berriro, bost hiruhilekoz gero eta gutxiago hazi eta gero. Erresuma Batua aurreikusi zena baino gehiago hazi zen, Japonia bezala. Azken herrialde horrek hirugarren hiruhilekoz bizkortu zuen erritmoa, kanpo eskariaren bultzadari esker. Euroguneak, berriz, susperraldi neurritsua, baina iraunkorra, egiaztatu zuen, bere BPGaren gehikuntza berriro %1,7an kokatuz. Aurreko guztiaren ondorioz, ELGEko herrialdeak, oro har, %1,7 hazi ziren. Datu horrek amaiera eman dio etengabeko galerak bildu zituen urtebete bati. Azaleratzen ari diren ekonomietan, bilakaera kontrajarriak hauteman ziren oraindik. Izan ere, azaleratzen ari diren Asiako herrialdeek jardueraren bizitasunari eutsi zioten -Txina %6,7 hazi zen eta India, berriz, %7,2-, baina Ekialdeko Europan nolabaiteko galgatze orokorra nabaritu zen, Errusiak, jaitsiera erritmoa gutxitu zuen arren, atzeraldian murgilduta jarraitu zuen bitartean. Azkenik, Amerika Latinoan, Argentinako uzkurdura areagotu zen eta Brasileko atzeraldia leundu (%-2,9).

Zehazkiago adierazita, Txina %6,7 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, aurreko bietan beste. Kontsumoak bultzatu zuen bereziki hazkunde sendo hori, kapital finkoaren eraketa gordinaren ekarpena zertxobait murriztu zelako bigarren hiruhilekoaren aldean, ekonomia egokitzeko prozesu luzearen ondorioz. Joera horretatik urrun, kanpo eskaria kokatu zen, beste hiruhileko batez, jardueraren oztopo bihurtu baitzen, BPGaren gehikuntzari hamarren batzuk kendu zizkiolako. Esportazioek moteltzeko joera luzea izan dute herrialde horretan eta irailean %10 baino gehiago murriztu ziren. Horrek azaltzen du kanpo saldoaren portaera hori. Azkenik, prezioek %2,1era handitu zuten igoera urrian eta irailean hasitako susperraldiari jarraipena eman zioten, abuztuan jasotako %1,3aren ondoren. Hala eta guztiz ere, KPIa Pekinek ezarritako helburuaren (%3,0) barruan dago oraindik.

AEBetan, ekonomia jardueraren hedatzeak bizitasuna hartu zuen, bost hiruhilekoz moteltzeko joera etengabea bizi eta gero. BPGaren bultzagile nagusia kontsumo pribatuan eginiko gastua izan zen berriro, jarduerari 1,1 puntu ekarrita, lan merkatuaren baldintzen etengabeko hobekuntzan oinarrituta. Izan ere, familien kontsumoak eskuratu zuen %2,7ko hazkunde tasak kontsumo publikoaren geldotasuna eta inbertsio pribatuaren jaitsiera, hala ekipamenduan nola azpiegiturretan eginikoa, konpentsatu zituen. Aurrekoari gehitu behar zaio esportazioen susperraldia. Beraz, herrialde hartako BPGa %1,6 hazi zen. Lan merkatuak albiste onak ekarri zituen berriro eta urrian langabezia tasa %4,9ra jaitsi zen. Azkenik, inflazioak gora egin zuen berriro eta %1,6an kokatu zen hileko horretan, uztaileko datua bikoiztuz.

Japoniako BPGa %1,0 hazi zen, urte osoko emaitzarik onena delarik. Gastu publikoaren eta esportazioen gehikuntzak bultzatu zuten ekonomia. Osagai elektronikoen salmentak eta merkatu batzuen eskaria, hala nola Europar Batasunarena, igo izanak esportazioak areagotu zituzten. Hala eta guztiz ere, hazkunde horrek ez du Japoniako gobernua gogobetetzen, tifoien kopuru handiak eta beren intentsitateak kontsumo pribatua, ekonomiaren %60 biltzen baitu,

kaltetu zutelako eta oso gutxi hazi zelako. Aldi berean, enpresen inbertsioa geldituta dago. Ekonomiak pairatzen dituen egiturazko arazoei gaur eguneko koiuntura ekonomikoa erantsi behar zaio, non Donald Trumpen garaipenak ziurgabetasuna ekarri baitu. Beraz, susperraldi horren iraunkortasuna zalantzan dago berriro. Langabezia tasak eta prezioen bilakaerak hainbat datu positibo ekarri zituzten, aldagai horiek, hurrenez hurren, %3,0an eta %0,2an kokatu zirelako urrian.

Europar Batasunak mundu mailan agertu diren ziurgabetasun ekonomiko eta politikoko gertakari kaltegarrien aurrean, eusteko ahalmena duela erakutsi zuen. Horretarako, lagungarria izan zen Europako Banku Zentralak ezarri dituen moneta politikako neurri sorta. Hain zuzen ere, enpresen errentagarritasunaren hobekuntzak inbertsioaren susperraldia bultzatzen jarraitu zuen. Aldi berean, petrolioaren prezio nahiko apalek eta enpleguaren hazkunde iraunkorrak errenta erreal eskuragarriari eta, horrekin batera, kontsumo pribatuari mesede egin zieten. Aurrekoaren ondorioz, Europar Batasuneko BPGa %1,9 hazi zen. Alemanian, gobernua iheslarien krisiari aurre egiteko zuzendu duen dirutzak eta lan merkatuaren egoera onak, non soldatak igotzen diren eta enplegua bizkor sortzen den, kontsumoa eta inbertsioa egonkortu zituzten eta ekonomia jarduera %1,7an utzi zuten berriro. Frantzian, esportazioen gorakada ez zen nahiko izan kontsumo pribatuaren geldialdia, berriro erritmoa galdu baitzuen, eta inbertsioaren moteltzea konpentsatzeko. Horren ondorioz, ekonomia jarduera %1,1era arte apaldu zen. Azkenik, Erresuma Batuan, esportazioen eta familien kontsumoaren bilakaera onak %2,3ra igoarazi zuen BPGa, aurreko hiruhilekoko emaitza bi hamarrenetan gaindituz.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %8,3an kokatu zen urrian, 2009ko otsailetik inoiz izan duen txikiena baita. Datu horien arabera, 20,5 milioi lagun inguru daude lanik gabe herrialde multzo horretan, haietatik 15,9 milioi Eurogunekoak direlarik. Eremu hori osatzen duten herrialdeen artean alde handiak hautematen dira lan merkatuari dagokionez. Esate baterako, urrian langabezia tasak kontrolatuta eta krisiaren aurreko mailaren azpitik zeuden Alemanian (%4,1), Erresuma Batuan (%4,7 abuztuan), Maltan (%4,9) eta Herbeheretan (%5,6), baina Espainiari (%19,2) eta Greziari (%23,4 abuztuan) bide luzea geratzen zaie oraindik 2007ko amaieran zuten langabezia tasara hurbiltzeko (%8,1 zen Greziakoa eta %8,8 Espainiakoa garai hartan). Azkenik, Eurogunean kontsumoko salneurriak %0,6 igo ziren azaroan.

Europako testuinguruan, espainiar ekonomia nabarmendu zen, %3,2ko hazkunde sendoa jasoz. Gorakada horri esker dagoeneko hamaika hiruhileko kateatu ditu datu positiboak eskuratuz, azken sei hiruhilekoetan %3,0ko langa gainditu duelarik. Osagaiak aztertuta, BPGa bereziki barne eskarian oinarritu zen, batez ere kontsumo pribatuan, inbertsioan eta, neurri txikiagoan, kanpo saldoaren ekarpen positiboan, protagonismo apur bat berreskuratu baitu, hazkundeari sei hamarren ekarrita. Eskaintzaren ikuspegitik, agregatu guztiek gehikuntza tasa positiboak

eskuratu zituzten, baina lehen arloak eta eraikuntzak bakarrik lortu zuten aurreko hiruhilekoko emaitzak hobetzea.

Analisia lan merkatuan fokatuta, hiruhilekoka eginiko kontabilitatearen datuen arabera, enplegua %2,9 areagotu zen urteko laugarren hiruhilekoan. Datu horrek adierazten du azken hamabi hilekoetan lanaldi osoko 499.000 lanpostu baliokide sortu zirela. Sektoreen bilakaera aztertuta, eraikuntzak jaso zuen gehikuntza tasa handiena (%3,5), aurreko hiruhilekoan eskuratu zuena baino bi puntu gehiago. Zerbitzuek izan ezik, sektore guztiek hobetu zituzten aurreko hiruhilekoko emaitzak. Sektore guztietako tasak tamaina handikoak izan ziren eta horrek agerian uzten du ekonomiaren egoera ona dela. Azkenik, inflazioa %0,7an zegoen azaroan. Hamahiru hilekoz jarraian jaitsierak jaso eta gero, azarokoa da hirugarren tasa eremu positiboan.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2014	2015	2015				2016		
			I	II	III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	1,1	2,6	2,1	2,4	3,0	3,1	3,1	2,6	2,4
- Familien gastua	1,6	2,8	2,4	2,5	3,3	3,2	3,4	3,2	2,8
- Administrazioaren gastua	-0,3	2,0	1,0	1,9	2,3	2,7	2,0	0,8	1,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,8	6,0	4,7	6,3	6,7	6,4	4,8	3,6	3,1
- Aktibo finko materialak	3,8	6,5	5,1	6,6	7,3	6,8	4,9	3,7	3,2
- Eraikuntzan	1,2	4,9	4,8	4,6	5,3	5,0	3,1	2,0	2,0
- Ekipamendurako ondasunetan	8,1	8,8	5,5	9,7	10,4	9,6	7,6	6,1	4,9
- Jabetza intelektualeko produkt.	3,5	3,6	2,5	4,7	3,3	4,0	4,2	3,5	2,6
Nazio eskaria (*)	1,9	3,3	2,7	3,1	3,7	3,8	3,5	2,9	2,6
Esportazioak	4,2	4,9	4,6	5,0	4,9	5,0	4,1	6,4	2,8
Inportazioak	6,5	5,6	4,8	5,5	6,2	6,1	4,8	5,1	0,9
BPG (m.p.)	1,4	3,2	2,7	3,1	3,4	3,6	3,4	3,4	3,2
Nekazaritza eta arrantza	-1,6	-2,9	-6,5	-4,3	-4,3	3,9	4,3	2,4	2,5
Industria	1,8	5,5	5,3	5,6	6,1	4,9	3,0	3,1	1,9
Eraikuntza	-1,2	0,2	-0,2	-0,4	0,1	1,1	1,7	1,6	2,7
Zerbitzuak	1,4	2,6	2,2	2,6	2,9	2,9	3,4	3,6	3,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,9	6,7	6,2	6,6	6,9	7,0	4,8	4,2	4,5
GOGORATZEKOAK									
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,2	-0,5	-1,0	-0,3	-0,4	-0,3	-0,7	-0,9	-0,2
- Enplegua (**)	1,1	3,0	2,8	3,0	3,0	3,0	3,1	2,8	2,9

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2016ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak %3,0 handitu zuen bere BPGa urte arteko tasan. Tasa hori aurrekoa baino bi hamarren txikiagoa da eta agerian uzten du hazkunde erritmoa leunki moteltzen ari dela. Beraz, bi hiruhilekoz jarraian gehikuntza erritmoa gutxitu da. Hala eta guztiz ere, galgatzeko joera hori aurreko txostenetan aurreikusi zena baino txikiagoa izaten ari da eta erakusten du ekonomiak inertzia handia daukala bere bilakaeran. Orobat, dagoeneko bost hiruhileko kateatu ditu %3,0ko edo hortik gorako tasak bilduz, inguruneko ekonomiek askoz ere apalagoak diren emaitzak eskuratu dituzten bitartean. Izan ere, Europar Batasuna, oro har, %1,9 hazi zen epealdi berean, aurreko bi datuak berdinduz. Eurogunek, berriz, %1,7ra mugatu zuen bere gehikuntza tasa, kasu horretan ere egonkortasuneko joera erakutsiz hiruhilekoko datuetan. Eremuen arteko alde horiek hiruhileko arteko tasen analisisan ere ikusten dira, EAEkoa %0,6 izan baitzen, Europar Batasunekoa %0,4 eta Eurogunekoa %0,3 izan ziren bitartean.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	1,6	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2	3,0
Nekazaritza eta arrantza	-19,8	13,4	13,1	24,3	11,6	2,8	-0,7
Industria eta energia	2,0	3,9	4,5	4,9	4,8	2,4	2,9
- Manufakturen industria	2,4	4,7	5,4	5,7	4,7	2,6	3,1
Eraikuntza	-1,7	0,5	0,2	-0,2	-0,3	2,7	1,9
Zerbitzuak	1,7	2,9	3,1	2,8	3,0	3,4	3,1
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,9	4,5	4,9	3,8	3,1	3,9	3,7
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,6	2,5	2,4	2,2	2,2	2,4	2,4
- Gainontzeko zerbitzuak	1,0	2,0	2,3	2,4	3,4	3,6	3,0
Balio erantsi gordina	1,4	3,1	3,3	3,2	3,3	3,1	3,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	1,1	1,2	2,0	3,2	3,2	2,9

Iturria: Eustat.

Ekoizpen arloen ikuspegitik, hiruhilekoaren ezaugarria EAEko ekonomiaren bi jarduera nagusien arteko oreka berreskuratu izana da. Izan ere, ia ez dago alderik industriaren eta zerbitzuen

hazkunde tasen artean. Beste aldetik, eraikuntzak urrats bat atzera eman zuen suspertzeko bere ibilbidean eta ez zen gai izan bigarren hiruhilekoko gehikuntza nabarmenari eusteko, bere balio erantsiaren gehikuntza %1,9ra arte apalduz. Eraikuntzako koiuntura indizearen arabera, sektorearen atal dinamikoena eraikinak izan ziren, obra zibilak oraindik uzkuertzeko zantzuak erakusten dituen bitartean.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2016				
			I	II	III	Urria	Azaroa
Industria							
Industria produkzioaren indizea	1,4	3,5	5,1	-0,5	1,1	0,3	---
Industria giroaren indizea	-12,6	-3,9	0,2	-2,4	-9,5	-10,1	-2,1
Ekoiizteko ahalmen. erabilera (%)	76,1	79,7	79,3	81,9	82,6	---	80,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,2	-0,3	1,3	1,6	2,0	2,2	2,1
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-4,6	-0,1	-0,5	1,9	0,5	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	2,0	45,5	67,2	-16,2	-13,3	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	8,8	21,1	24,9	20,5	-1,3	-2,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-0,3	-0,1	-0,3	0,2	0,5
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,3	6,5	12,4	7,5	4,8	5,3	11,7
Hoteletan igarotako gaualdiak	4,0	8,2	20,3	7,1	6,9	10,6	---
Hoteletako okupazioa	46,4	49,8	37,7	53,4	71,3	58,5	---
Negozio zifren indizea	4,2	4,3	3,8	6,1	4,2	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,3	2,5	3,4	5,1	1,9	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,4	2,8	2,6	2,3	1,9	2,1	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Dagoeneko aipatua izan denez, EAEko ekonomiaren une ona ahalbidetu duten zutabeetako bat industria da. Sektore horren balio erantsia %2,9 handitu zen hirugarren hiruhilekoan. Tasa horrek urruntzen du, behintzat oraingoz, bigarren hiruhilekoko moteltze biziak (%2,4 hazi zen, lehen hiruhilekokoaren erdia) eragin zuen berriro erortzeko beldurra. Emaidza okerrago hori altzairugintzan eta energian agertu ziren arazo jakin batzuen ondorioa izan zen. Zailtasunak ez dira desagertu, baina azken hilekoetan gutxitu dira.

Industriaren moteltzea eta ondorengo susperraldia iragarrita zeuden IPIk eskaintzen dituen ekoizpeneko datuetan. Estatistika horretan energiaren bilakaerak indize orokorraren emaitzan izan duen eragina hautematen da. Hain zuzen ere, energia alorreko produkzioa %12,5 murriztu zen hirugarren hiruhilekoan urte arteko tasan, eta zazpi hilekoz jarraian egon da eremu negatiboan. Hala ere, zenbakiak leundu dira eta urrian, argitaratu den azkena baita, jaitsiera %0,7 batera mugatu zen. Beste muturrean, ekipamendurako ondasunen ekoizpena %9,2ra bizkortu zen hiruhilekoan, nahiz eta urriko datua (%2,3) nabarmen txikiagoa izan zen. Bitarteko ondasunek, berriz, gelditasuna erakutsi zuten (%0,1) epealdi horretan. Azkenik, kontsumoko ondasunek atzean utzi zituzten aurreko beherakadak eta %1,0ko igoera izan zuten, urrian areagotu dena (%4,4).

Industria ekoizpenaren urriko datuak nolabaiteko ahultasuna erakusten duen arren, iritziak biltzen dituzten inkestek baikortasun nabarmena islatzen dute sektore horretan. Izan ere, Industria Ministerioak egiten duen industria giroaren indizeak, udako eta urriko okertzearen ondoren, azaroko erantzunak askoz ere positiboagoak izan zirela adierazten du. Batez ere etorkizunari buruzko igurikimenak dira onak, erantzun baikorrak ezkorrek baino gehiago izan zirelako. Orobat, hileko horretan, eskari zorroari buruzko erantzunak aurreko hilekoetakoak baino baikorragoak izan ziren. Azkenik, saldu gabe dauden amaitutako produktuen stocka urte osoko txikienetako bat izan zen. Aurreko guztiari erantsi behar zaio ekoizteko ahalmenaren erabilera oraindik oso altua dela eta maila hori bateragarria dela jarduera handitzeko inbertsio berriekin.

Industriak bezala, zerbitzuek ere portaera dinamikoa erakutsi zuten hirugarren hiruhilekoan eta antzeko balioak eskuratu zituzten. Zehazkiago adierazita, zerbitzuen balio erantsia %3,1 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko epealdian baino hiru hamarren gutxiago, baina 2015ean eta 2016an erakutsi duen portaerarekin bat eginez. Beste hiruhileko batez, bizitasun handiena arlo pribatuari lotuago dauden jardueretan lortu zen, bereziki merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldean aurkitzen direnetan, balio erantsia %3,7 areagotu zutelako, hots, aurreko emaitza baino bi hamarren gutxiago bakarrik. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak batzen dituen taldeak aurreko datuari eutsi zion (%2,4) eta oso bilakaera egonkorra erakutsi du 2014tik tasa horren inguruan. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek izan zuten moteltze handiena aurreko datuaren aldean, bigarren hiruhilekoan eskuratutako %3,6tik hirugarreneko %3,0ra jaitsita. Dena dela, oraindik urte arteko gehikuntza tasa garrantzitsua da hori.


Eustaten kontu ekonomikoek zerbitzuen balio erantsian zenbatetsi duten moteltze arina bateragarria da bai erakunde horrek bai INEk argitaratu duten koiunturako informazioarekin. Izan ere, Eustatek osatzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak %1,9ko gorakada adierazi du hirugarren hiruhilekoan sektore guztirako. Tasa hori ez da iristen bigarren hiruhilekoko

bizitasunera, baina hurbil dago 2014ko eta 2015eko batez besteko balioetatik. Beste hiruhileko batez, bultzada handiena merkataritzak eman zuen (%3,3), nahiz eta jarduera hori urrun egon zen bigarren hiruhilekoko emaitza bikainetik (%6,5). Hala automobilen salmentak (%2,7) nola handizkako (%4,3) eta txikizkako merkataritzak (%2,0) gehikuntza tasa nabarmenak lortu zituzten, baina aurreko hiruhilekokoetara heldu gabe. Beste aldetik, gainontzeko zerbitzuek uzkurdura txikia (%-0,2) izan zuten eta portaera kontrajarriak aurkitzen dira garraioan (%-4,3) eta ostalaritzan (%4,0). INEk kalkulatzeko duen negozio zifrari dagokionez, hirugarren hiruhilekoan %4,2 hazi zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi puntu gutxiago. Azkenik, turismoak oso bilakaera positiboari eutsi zion, gaudien eta hegazkinez bidaiatu duten pertsonen datuek baieztatzen dutenez.


BPGaren moteltze arinak ez zion kalterik ekarri enplegu sorrerari, %1,8ko hazkundea berriro zuelako. Tasa horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan lanaldi osoko 16.000 lanpostu baliokide inguru sortu zirela. Horri esker, EAEko ekonomiaren lanpostuen kopurua 900.000etara hurbildu da eta 2012ko hasierako zenbakia berreskuratu du.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Enpleguaren alorrean, bi dira hirugarren hiruhilekoko ezaugarri azpimarragarriak. Alde batetik, epealdi horretan eraikuntzak utzi egin zion enplegua galtzeari, lehenengo aldiz 2007tik, baina ez zen gai izan urte arteko aldakuntza tasa positibo bat jasotzeko. Beste aldetik, industriak eta

zerbitzuek %2,0ko urte arteko tasan handitu zuten beren lanpostuen kopurua. Lehen kasuan, sektoreak enplegua sortzeko duen ahalmena finkatu da eta arlo horretan dauden lanpostuen kopurua 3.600 baino lagun gehiagotan handitu da. Bigarrenean, tasa horrek 12.600 lanpostu garbi gehiago daudela adierazten du. Dena dela, kasu horretan gehikuntza tasa azken zazpi hiruhilekoetako txikiena da, moteltze leuneko prozesu garbi batean.

Enpleguak hirugarren hiruhilekoan erakutsi zuen irudi onak jarraipena izan zuen 2016ko azken zatian, dagoeneko ezaguna den Gizarte Segurantzako afiliazioak iradokitzen duenez. Izan ere, estatistika horrek %1,7ko gehikuntza jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, baina dagoeneko argitaratu diren urriko eta azaroko datuek %2,1era igo dute bi hileko horien batez besteko emaitza eta urtean zehar hautematen zen tasa moteltzeko joerari galga jarri dio. Estatistika horretan, gorakada eraikuntzak eta zerbitzuek lortu dute, eraikuntza enplegu garbia sortzen hasi baita. Zerbitzuko jardueren artean, nabarmentzekoa da osasun arloko zerbitzuek (%3,5), hezkuntzak (%3,2), administrazio jarduerak eta zerbitzu laguntzaileak (%3,7) eta ostalaritzak (%2,9) izan duten bizitasuna. Beste muturrean, afiliatuak gutxitu dituzte finantza (%-3,6) eta higiezinaren jarduerak (%-6,7).

BPGaren eta enpleguaren konbinaketak iradokitzen du produktibitatea %1,1 handitu zela hirugarren hiruhilekoan. Tasa hori aurreko hiruhilekoetako baino zertxobait txikiagoa da, baina bat dator 1995etik lortu den batez besteko irabaziarekin. Aurreko hiruhilekoan bezala, deigarria da industriak lortu duen irabazi apala (%0,9), eraginkortasun handia izaten duen sektorea delako. Aitzitik, hala zerbitzuek (%1,1) nola eraikuntzak (%1,9) beren batez besteko historikoetatik oso gora dauden emaitzak eskuratu zituzten, normalean ez baitira %1,0ra iristen.

Barne eta kanpo eskaria

Aurreko hiruhilekoan ez bezala, 2016ko hirugarrenean kanpo eskariak nolabaiteko protagonismoa berreskuratu zuen eta ekarpen positiboa egin zion BPGaren gehikuntzari, bi hamarren ingurukoa. Halere, barne eskariak bultzatu zuen EAEko ekonomiaren hazkundea, urte arteko tasan %2,7ko aldakuntza bati esker. Tasa hori bigarren hiruhilekoakoa (%3,3) baino txikiagoa da, baina gogoratu behar da azken hori 2007tik lortu den handiena zela.

Barne eskariaren moteltzeak bi osagai nagusien portaeran izan zuen jatorria, modu paraleloan garatu baitziren. Eszenategi horretan, kapital eraketa gordinak oraindik erakusten du bizitasun handiagoa, nahiz eta azken kontsumoak ere sendotasun handiko irudia eskaintzen duen.

Zehatz-mehatz adierazita, inbertsioak %3,1eko urte arteko tasa eskuratu zuen, hots, aurreko datua baino sei hamarren gutxiago. Azken kontsumoan eginiko gastuak, berriz, %2,7ra mugatu zuen gehikuntza, bigarren hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago delarik.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	III
BPG errealak	1,6	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2	3,0
Gastua azken kontsumoan	1,9	2,8	3,2	2,7	3,1	3,2	2,7
- Familien gastua kontsumoan	2,2	3,1	3,1	2,9	3,3	3,4	3,1
- Adminis. gastua kontsumoan	0,7	1,8	3,4	2,0	2,4	2,7	0,8
Kapital eraketa gordina	-0,5	2,8	2,8	2,8	3,4	3,7	3,1
- Ekipamendu ondasunak	3,3	6,5	7,4	8,8	10,7	7,0	6,1
- Gainontzeko inbertsioa	-2,0	1,2	0,7	0,3	0,2	2,2	1,6
Barne eskaria	1,4	2,8	3,1	2,7	3,1	3,3	2,7
Esportazioak	5,8	0,6	-2,9	2,3	4,2	3,0	1,6
Inportazioak	5,3	0,6	-2,8	1,6	3,9	3,2	1,3

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren bi osagaietatik, administrazio publikoetan eginiko gastuak moteltze handiagoa ezagutu zuen hirugarren hiruhilekoan. Epealdi horretan jasotako %0,8ko gehikuntza aurreko lau hiruhilekoetan lortutakoak baino askoz ere beherago dago. Gaur eguneko erritmoa bateragarriagoa da defizita kontrolatzeko administrazioan ezarri den helburuarekin. Dena dela, kontuan hartu behar da ordainketen egutegiak eragina izan dezakeela hiruhileko bakoitzaren datuetan eta datu jakin batek ez duela balio aldagai horren joera hautemateko.

Kontsumo pribatuak %3,1eko hazkundera lortu zuen epealdi horretan, bigarren hiruhilekoan eskuratutakoa baino hiru hamarren gutxiago bakarrik. Berritoki ere, agregatu horren gehikuntza BPGarena baino zertxobait handiagoa izan zen. Portaera hori onartzeko da une jakin batean, baina ez da komenigarria gehiegi luzatzea, familien zorpetzea areagotu dezakeelako eta atzerriarekiko merkataritza defizita handitu dezakeelako, kontsumo hori inportazioetara bideratzen bada. Enpleguaren bultzada, ekonomiaren etorkizunaz dauden igurikimenez hobekuntza, ia hutsala den inflazioa, soldata nominalen igoera txikia eta zuzentzen aurretzen denaren jaitziera dira familien kontsumoaren bilakaera bizi hori justifikatzen duten arrazoiak batzuk.

Kapital eraketa gordinak, dagoeneko adierazi denez, bizitasun handiena eskaini zuen hirugarren hiruhilekoan barne eskariaren osagaien artean, urte arteko tasa %3,1 hazi baitzen. Hala eta guztiz ere, gehikuntza tasa hori aurreko hiruhilekoko baino sei hamarren txikiagoa izan zen eta badirudi aldagai horren hazkunde erritmoa gehienezko puntu batera iritsi dela. Bizitasunaren galera berdin gauzatu zen ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan eta gainontzeko inbertsioan. Zehazkiago adierazita, ekipamendurako ondasunek gehikuntza sendoa (%6,1) eskuratu zuten, baina lau puntu baino gehiago apaldu du urte hasieran jaso zuen datua (%10,7), 1998tik izan duen gorena zelarik. Zaharkituta zeuden ekipoak berritzeko beharra zegoen eta behar hori, neurri handi batean, azken bi urtean bete da. Beraz, hemendik aurrerako gehikuntzak ahalmena handitzeko beharraren arabera izango dira. Beste aldetik, gainontzeko inbertsioa, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, %1,6 gehitu zen, bigarren hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago.

Ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordinaren moteltzea agregatu makroekonomiko horri asimilatu dakizkiokeen koiunturako adierazleetan ere hauteman zen. Alde batetik, ondasun mota horien inportazioa %8,4 areagotu zen hirugarren hiruhilekoan. Datu hori oso sendoa izan arren, aurreko hiruhilekoetan jasotako azpitik dago, azken horiek bi zenbakiko tasak zituztelako. Orobat, ekipamendurako ondasunen ekoizpena, neurri batean barne eskarira bideratzen baita, %9,2 hazi zen hirugarren hiruhilekoan eta tasa positiboa jaso zuen urrian ere, nabarmen apalagoa izan bazen ere.

Aurreko buletinean seinalatu zenez, kanpo arloa portaera orekatua erakusten ari da EAEko barne produktu gordinaren gehikuntzan, hiruhileko bakoitzean zeinu bateko edo besteko ekarpen txikiak eginez, kanpoarekiko lehiakortasuna zalantzan jartzen ez dituztenak. Izan ere, bigarren hiruhilekoan hiru hamarreneko ekarpen negatiboa egin ondoren, azken datuak bi hamarreneko ekarpen positiboa egin duela adierazten du. Bai esportazioek bai inportazioek hazkunde erritmoa galgatu zuten termino errealean. Lehen kasuan, gehikuntza tasa %1,6ra mugatu zen eta bigarrean urte arteko tasa %1,3an kokatu zen. Bi tasa horien arteko aldeak azaltzen du BPGaren ekarpena zergatik aldatu den zeinuz. Termino nominaletan, bakoitzaren urte arteko aldakuntza tasa %-0,2 eta %-1,0 izan ziren. Horrek agerian uzten du, beste hiruhileko batez, kanpoan gehiago saltzen bada ere, esportazioen salneurriak merkatu direnez saldutako produktuen balioa kaltetuta ateratzen dela eta hirugarren hiruhilekoan iazkoa baino are txikiagoa izan zela. Inportazioen prezioak ere jaitsi ziren eta horrek mesedea egin zion EAEko ekonomiari.

Analisia atzerriarekin eginiko ondasunen salerosketetan fokatzeko bada, adierazi behar da hirugarren hiruhilekoan esportazioek %5,5eko beherakada izan zutela aurreko urteko epealdi beraren aldean. Jaitsiera hori energiako ondasunek eragin zuten, zeren eta gainontzeko ondasunen salmenta positiboa izan baitzen.

Hain zuzen ere, erregai mineralen esportazioen balioa %55,2 gutxitu zen urte arteko tasan hirugarren hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoetan, petrolioaren merkatzeak azaltzen zuen jaitsiera hori, baina txosten honetan aztertzen ari den epealdian saldutako kantitateak justifikatzen du bereziki balioaren galera, prezioek ere eragina izan zuten arren. Izan ere, atzerrira esportatutako erregaien bolumena %40,6 murriztu zen aurreko urteko epealdi beraren aldean. Gogoratu behar da iazko hiruhileko horretan inoiz baino kantitate gehiago esportatu zela atzerrira eta, beraz, errekorra izan zen zenbaki batekin erkatzeak kalte egiten diola oraingo datuari. Beste aldetik, kontuan hartuta energiaren ekoizpena %12,5 bakarrik gutxitu zela, litekeena da salmenten egitura geografikoan aldaketa bat gertatzea eta orain espainiar merkatura, proportzioz, gehiago bideratzea.

Erregaiak alde batera utzita, energiak bestelako esportazioek portaera ona izan zuten, urte arteko tasan %2,7ko gehikuntza balioan eta %2,5, berriz, tonatan, lortuta. Zenbaki horiek adierazten dute prezioen bilakaera oso apala izan zela, baina goranzkoa. Esportazioen bultzada handiena garraio materialaren eskutik iritsi zen, %11,8 handitu baitzen, urte osoan zehar erakutsi zuen bilakaera onari jarraipena emanez. Orobat, nekazaritzako produktuek (%7,2) eta kimikoeak (%1,8) ere urte arteko gehikuntzak eskuratu zituzten. Aitzitik, esportazioak gutxitu ziren atal hauetan: makinak eta tresnak (%-6,2), kautxua eta plastikoa (%-3,2), metal arruntak eta beren manufakturak (%-0,4) eta papera (%-0,1).

Esportazioen banaketa geografia eremuka aurreko hiruhilekoetakoaren antzekoa izan zen eta salmentak are gehiago kontzentratu ziren herrialde garatuetan. Herrialde horretara bideratutako salmentak jaitsi baziren ere, garapen bidean dauden herrialdeetara esportatutakoa nabarmen gehiago murriztu zen. Krisiaren lehen urteetan, merkatuak dibertsifikatzeko joera hauteman zen, garatzen ari diren herrialdeen mesederako, baina ekonomia garatuen susperraldiak eta azaleratzen ari diren hainbat herrialdeetan bizi diren zailtasunek EAEko enpresen esportazioen %81,1 ELGEaren herrialdeetara bidaltzea ahalbidetu du. Neurri handi batean, erregai mineralen eta ibilgailu automobilen salmenta nabarmentzen da, produktu horien %90 baino gehiago herrialde garatuetara bideratzen direlako. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeen eskaera makineria mota ezberdinetan fokatzen da.

Herrialde garatuetara bidalitako salmenten jaitsiera berdin nabaritu zen europarretan zein gainontzekoetan. Izan ere, Europar Batasunera zuzendutako esportazioak %3,7 gutxitu ziren eta gainontzeko herrialde garatuetan %2,7 gutxiago saldu zen. Azpimarratzekoa da AEBetara bidalitako produktuen jaitsiera bizia (%-28,3), aurreko hiruhilekoan ere jaso zenari gehitzen zaiona eta erregai mineralen salmentari (%-59,1) lotuta dagoena, nahiz eta makinariaren salmentak emaitza ona (%12,8) lortu zuen herrialde horretan. Aurreko hiruhilekoan bezala, Japoniak hiru zenbakiko gorakada bat izan zuen eta EAEko produktuen erosketa bikoiztu zuen, bereziki ibilgailuena (%128,0).

Oro har, gutxiago esportatu bazen ere, Alemanian kontrakoa gertatu zen eta %7,0 areagotu zuen EAEko produktuen erosketa, aurreko epealdietako emaitzen antzekoa delarik. Herrialde horrekin dagoen merkataritza harremana oso fokatuta dago automobiletan eta berauen salmenta %25,1 areagotu zen, aurreko balioen antzerakoa baita. Burdinaren galdaketak ere emaitza ona (%146,6) lortu zuen, baina makineriaren esportazioak jaitsi ziren. EAEko produktuen beste merkatu behinenak, Frantziak, nabarmen murriztu zituen erosketak (%-8,9), bereziki erregai mineralena (%-56,8) eta ibilgailuena (%-2,9), baina galdaketarekin zerikusia dutenak, horiek ere pisu garrantzitsua baitute, erritmo onean handitu ziren.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015			2016	
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	9,9	-1,3	-2,4	2,4	0,3	-5,5	5.119.097
ELGE	9,4	1,6	3,0	7,4	3,6	-3,2	4.152.751
Europar Batasuna	12,9	0,9	2,0	7,6	5,0	-3,7	3.344.885
Frantzia	7,0	2,4	14,6	7,7	7,9	7,0	826.288
Alemania	0,8	5,6	7,1	7,4	3,4	-8,9	818.366
Erresuma Batua	11,2	6,8	6,6	-0,6	-6,7	-17,0	300.142
Italia	9,9	16,9	6,8	-3,8	-9,9	-4,3	234.094
AEB	18,9	0,7	-3,6	15,3	-15,0	-28,3	328.395
ELGETik kanpokoak	11,7	-11,0	-19,5	-16,7	-11,9	-14,1	966.346

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Italiari dagokionez, EAEn gehien erosten dituen lau produktu motetatik, emaitza ona lortu zen ibilgailuetan (%42,1) eta burdinaren eta altzairuaren galdaketan (%35,8). Hala ere, beherakada garrantzitsuak izan ziren makineria mekanikoan (%-16,7) eta kautxuan (%-5,4). Jaitsiera are esanguratsuagoa izan zen Erresuma Batuan, dagoeneko hiru hiruhilekoz jarraian gero eta biziagoak diren jaitsierak kateatu dituelako. Merkatu horretan, garrantzia handia daukate automobilerik, erosketa guztietatik ia herena biltzen baitute, makineriak eta burdinaren eta altzairuaren galdaketa. Hiruretan jaitsiera esanguratsuak jaso ziren.

Garapen bidean dauden herrialdeetan, oro har, gutxiago saldu bazen ere, ez zen gauza bera gertatu Txinako merkatuan, berriro erritmo bizian hazi zelako hirugarren hiruhilekoz jarraian, kasu horretan %12,8. Salmenta horien ia erdia makineria izan zen, emaitza onak eskuratuta. Orobat gertatu zen galdaketaren manufaktorekin eta egur pastarekin, pisua duten beste bi

atalak baitira. EAEko produktuentzat gero eta garrantzitsuagoak diren beste merkatuen artean, Turkia nabarmendu zen, hirugarren hiruhilekoan galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuelako (%13,5). Marokon ere emaitza ona lortu zen (%37,9), baina Brasilek erdira murriztu zituen erosketak.

Inportazioei dagokienez, aurreko hiruhilekoetako jaitsiera bizkortu zen hirugarren hiruhilekoan, urte arteko tasa, balioan neurtuta, %-14,4an kokatu arte, baina %-24,7ra iristen da tonatan kalkulatzenean. Epealdi horretan, prezioen eragina energiaren atalean oso garrantzitsua izan zen, petrolioaren upelak gorantz egin bazuen ere urte hasierako balio minimoetatik. Izan ere, inportatutako erregai mineralen tonak %28,2 gutxitu ziren, baina beraien salneurria %42,5 jaitsi zen. Gainontzeko produktuetan, kontrako bilakaera hauteman zen, jaitsiera bolumenean %17,9 izan baitzen, baina aurreko urtean baino %2,0 gutxiago bakarrik ordaindu zen haien truke.

Inportazioen jaitsiera bereziki azpimarragarria izan zen herrialde garatuetan, EAEko enpresei %18,1 gutxiago bidali zitelako, baina garapen bidean dauden herrialdeetan ere gutxiago erosi zen (%-5,6). Herrialde batzuetan erregai mineralak baldintzatzen dituzte aldakuntza tasak, hala nola AEBetan (%-30,6) eta Erresuma Batuan (%-78,9), hiruhileko horretan hornitzaileak izateari utzi baitzioten. Haien ordeaz, erregaia Errusiatik, Brasiletik eta Persiako Golkoko herrialdeetatik ekarri zen. Mexikok eta Kolonbiak ere garrantzia galdu dute erregai mineralen erosketen egituran.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015			2016	
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	9,9	-3,0	-1,4	-7,6	-9,5	-14,4	3.671.463
ELGE	15,0	2,7	1,1	-10,4	-1,1	-18,1	2.491.543
Europar Batasuna	30,3	5,5	5,8	-4,5	-5,0	-16,2	2.122.752
Frantzia	5,9	20,6	23,8	23,0	9,8	8,5	599.866
Alemania	-0,7	11,7	10,2	-12,0	-5,6	-9,0	379.506
Erresuma Batua	180,0	15,1	-14,8	-56,6	-38,6	-78,9	111.750
Italia	2,9	3,5	13,3	-2,5	13,1	4,2	201.329
AEB	-52,3	2,9	19,1	-41,4	63,4	-30,6	67.390
ELGETik kanpokoak	0,9	-14,4	-7,8	-1,4	-27,0	-5,6	1.179.920

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europako herrialdeen artean, berriro ere Alemanian erositakoaren hazkundera (%8,5) nabarmendu zen, automobilen eta makineria mekanikoaren munduarekin oso lotuta baitaude. Bi kasuetan, inportazioak sendo hazi ziren. Italian ere erosketak berriro areagotu ziren (%4,2), baina aurreko hiruhilekokoak baino gutxiago. Makineria mekanikoak emaitza onak eskuratu zituen, burdinaren galdaketak behera egin zuen bitartean. Bi herrialde horietan ez bezala, Frantziatik inportatutakoa berriro jaitsi zen (%-9,0) burdinaren eta altzairuaren galdaketak baldintzatuta. Hori horrela izan bazen ere, herrialde hori oraindik EAEko ekonomiaren bigarren ondasun hornitzaile nagusia da.

Oro har, garapen bidean dauden herrialdeetatik inportatutakoa gutxitu bazen ere, alde handia egon zen herrialde batzuen eta besteen artean. Izan ere, Errusian erositakoa %56,4 handitu zen, lehenago aipatu den erregaien erosketen jatorri aldaketarengatik. Brasilek ere, arrazoi berregatik, emaitza nabarmena (%372,0) eskuratu zuen hiruhilekoan. Aitzitik, Txinatik %20,2 gutxiago inportatu zen, hala burdinaren galdaketaren atalean nola makinak eta tresna elektrikoaren atalean, herrialde hartatik ekartzen diren produktu egituraren pisu gehien duten ataletako bi baitira.

Esportazioen eta inportazioen balioen arteko aldeak 1.448 milioi euroko merkataritza saldoa uzten du atzerriarekin, EAEren aldekoa. Diru kopuru hori ez da iristen aurreko hiruhilekoetako batzuetan lortutakoetara, baina hirugarren hiruhileko batean inoiz lortu den altuena da. Ohikoa denez, energia alorreko saldoa negatiboa izan zen (-448 milioi euro), baina erregaien merkatzeari esker aurreko urteetako baino askoz ere txikiagoa izan zen. Aitzitik, energiaren bestelako saldoa oso garrantzitsua izan zen (1.858 milioi euro), baina lehenago eskuratu ziren maximoetara heldu gabe. EAEk aldeko saldoa herrialde garatuekin dituen merkataritza harremanetan lortzen du, ondasunen salerosketak garapen bidean dauden herrialdeen multzoaren aldekoa den bitartean.

Prezioak

Aurreko epealdietan ez bezala, prezioak aztertzen dituzten adierazle gehienek beheranzko joera aldatu zuten eta balio positiboak jasotzen hasi ziren. Hori horrela izanda, BPGaren deflatoreak azken hiruhilekoetako emaitzak finkatu zituen eta aldakuntza tasa %0,2tik %0,4ra igo zuen. Azken tasa hori oraindik apala bada ere, 2014ko laugarren hiruhilekotik inoiz jaso den altuena da. Gorakada hori kapital eraketa gordinaren deflatoreak (%0,6) eragin zuen, zeren eta bai kontsumo pribatuarenak (%-0,2) bai kontsumo publikoarenak (%-0,5) balio negatiboak izan zituztelako.

Kontsumoko prezioen indizeari dagokionez, prezioen aldakuntza tasak eremu positibora itzuli ziren abuztuan, hainbat hilekoz jarraian balio negatibotan murgilduta ibili ondoren, bereziki erregaien salneurriaren gorakadarengatik. Inflazioaren igoera hori hilekoz hileko finkatu zen eta azaroan, argitaratu den azken hilekoa baita, %0,7an kokatu zen, berriro ere energia alorreko osagaiaren jaitziera txikiago batek baldintzatuta. Inflazioaren igurikimenei buruz dauden adierazleek iradokitzen dute goranzko norabideak datozen hilekoetan ere jarraituko duela, petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan igoko den heinean.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2016			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	0,2	-0,3	-0,6	0,0	0,7	0,7
Azpiko inflazioa (%82,6)	0,3	0,7	0,8	0,9	0,8	0,7
- Elikagai landuak (%14,1)	0,0	1,1	1,3	0,6	-0,1	0,0
- Industria ondasunak (%26,6)	0,1	0,3	0,7	0,9	0,8	0,2
- Zerbitzuak (%41,9)	0,6	0,8	0,8	1,0	1,2	0,5
Hondar inflazioa (%17,4)	-0,6	-4,5	-7,2	-4,1	0,3	0,0
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	-1,2	1,9	2,9	2,7	1,7	0,1
- Energia (%10,6)	-0,1	-8,4	-13,3	-8,4	-0,7	-0,1

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, petrolioaren prezioa 45etik 50era bitarteko urkilan ibili zen apirilaren azken egunetatik eta abenduko lehen egunetan lortu zuen 50 dolarretako langa hori gainditzea. Egun horietan ezagutu zen herrialde ekoizle batzuek, hala Lurrealde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak (LPEE) nola erakunde horretako kide ez diren beste batzuek, eguneko ekoizpena milioi upel baino gehiago murrizteko akordio batera iritsi zirela. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta ezohiko petrolioaren erazteko ahalmena oso nabarmen handitu dela eta prezioaren igoera baten aurrean azkar erantzuteko gaitasuna daukatela, denbora luzea beharko da petrolioaren gehiegizko eskaintza gutxitzeko. Beraz, prezioen salneurrian 2017rako aurreikusten den gehikuntza ez da oso handia izango.

Euroguneko inflazioak, EAEn gertatu den bezala, goranzko joerari eutsi zion eta gora egin zuen 2015eko amaieran eta 2016ko hasieran petrolioaren salneurriak bizi zuen beherakada biziaren eragina desagertu zen heinean. Goratu zen arren, eremu horretako hazkunde tasa (%0,6 azaroan) EAEn jasotakoa (%0,7) baino txikiagoa izan zen. Beraz, autonomia erkidegoak bere

alde zeukan inflazio diferentziala galdu zuen. Dena dela, gogoratu behar da INEk ez duela argitaratzen KPI harmonizatu bat autonomia erkidegoentzat eta, horren ondorioz, Moneta Batasuneko KPIarekin egiten den alderaketa ez dela guztiz homogenea. INEk Estatuarentzat eskaintzen dituen datuetatik -KPIa %0,7an kokatu du, baina KPI harmonizatua %0,5ean-pentsatu daiteke EAerako balizko neurri harmonizatu bat Eurogunearena bezalakoa edo zertxobait txikiagoa izan zitekeela.

Azpiko inflazioari dagokionez, azken hilekoetako aldakuntzak ez ziren horren nabarmenak izan eta inflazioaren gune egonkorra oso gutxi mugitu zen, bigarren hiruhilekoan jasotako %0,8tik hirugarreneko %0,9ra, urrian eta azaroan berriro %0,8ra itzultzeko. Ekonomia jardueraren hazkunde garrantzitsuak eta euroaren balio galera nabarmenak oraindik ez dute eragin handirik izan adierazle horretan.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016			Azaroa
			IV	I	II	III		
Indize orokorra	0,2	-0,3	-0,1	-0,3	-0,6	0,0	0,7	
Janariak eta alkohol gabeko edariak	-0,6	1,4	2,2	2,4	2,0	1,5	0,5	
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,9	0,9	0,3	0,3	0,3	0,4	
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,4	0,5	0,5	0,8	0,9	0,8	
Etxebizitza	2,0	-1,7	-2,5	-5,6	-6,3	-4,3	-0,7	
Etxeko hornidura	-0,4	0,0	0,2	0,1	0,4	0,9	0,9	
Medikuntza	4,3	0,1	0,9	1,0	1,0	1,2	0,7	
Garraioa	-0,5	-4,1	-4,1	-3,8	-4,2	-1,7	1,3	
Komunikazioak	-6,1	-1,7	0,6	2,2	2,4	2,5	3,2	
Aisia eta kultura	-1,2	-0,2	0,1	-0,3	-2,3	-0,7	-1,4	
Irakaskuntza	2,7	2,2	0,7	0,5	0,5	0,5	1,0	
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,7	0,3	0,6	1,2	1,1	0,6	1,3	
Besteak	1,2	1,7	1,8	1,8	1,5	1,7	1,9	

Iturria: INE.

Azpiko inflazioak erakutsi zuen egonkortasuna, batez ere, landutako elikagaien bilakaeran oinarritu zen, beren emaitzak gutxituz joan zirelako zertxobait negatiboak ziren balioetan kokatu arte. Bilakaera hori hainbat produkturen merkatzeak, hala nola olioarenak, eragin zuen. Aldi berean, adierazle hori osatzen duten gainontzeko talde nagusiek aurrekoen antzeko tasak erakutsi zituzten. Aitzitik, hondar inflazioak garestitzeko joera erakutsi zuen, energia alorreko

produktuen goranzko norabide biziaren ondorioz, elikagai freskoek igoerak leundu zituzten arren.

KPIa osatzen duten produktu talde guztien artean, bi izan ziren goranzko bilakaera horretan eragin positibo handiena erakutsi zutenak. Alde batetik, etxebizitzak gehikuntza tasa nabarmenak aurkeztu zituen eta dagoeneko tasa negatiboak atzean uzteko unetik hurbil dago, azken hilekoetan argindarrak izan duen garestitzearen ondorioz. Ezagutu diren azken datuen arabera, adierazle hori %-0,7an kokatu zen azaroan. Beste aldetik, garraioa gaur egun inflazio tasa altuena duten taldeetako bat da, erregaien garestitzearen ondorioz, aurreko hilekoetan inflazioa beherantz bultzatzen zuen taldea izan zen bitartean. Gainontzeko taldeek, salbuespen bakarra aisia eta kultura (%-1,4) delarik, balio positiboak jasotzen jarraitu zuten eta une hauetan komunikazioek bakarrik gainditzen dute %2,0ko erreferentzia.

Industriako prezioek, gainontzeko adierazle guztiek bezala, goranzko joera garbia erakutsi zuten, baina oraindik ez dituzte atzean utzi balio negatiboak. Hala eta guztiz ere, urrian, hori baita ezagutu den azken hilekoa, %-0,7an kokatu zen eta horixe da 2014ko amaieratik inoiz jaso den baliorik altuena, batez ere energia alorrak izan dituen gehikuntza handietan oinarrituta.

Azkenik, berriro ere, soldaten hazkundera apala izan zen. Horixe adierazten du hitzarmen kolektiboetan adostutako soldata gehikuntzen analisiak. Halere, soldatak oso motel hazten ari diren arren, inflazioa baino gehiago hazi dira eta horrek erosteko ahalmena galtzea eragozten du. Oraindik ez da alde handirik hautematen enpresa eta sektore mailan adostutako soldata igoeren artean.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016 (*)
Convenios en vigor:	2,7	1,3	0,7	0,6	1,0
- Firmados durante el año	2,0	1,0	0,5	0,8	1,2
Por ámbito de negociación:					
- Convenios sectoriales	2,7	1,3	0,8	0,6	1,0
- Convenios de empresa	2,6	1,2	0,6	0,6	1,0

(*) 2016ko urrira arte erregistratutako hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiarentzat aurkeztu diren aurreikuspenek hazkunde neurritsua adierazten dute, arrisku zein ziurgabetasun handiak daudelarik. Consensus Forecastek abenduan munduko ekonomiarentzat egin zituen aurreikuspenek %2,5eko eta %2,8ko hazkunde tasak zenbatetsi zituen, hurrenez hurren, 2016rako eta 2017rako. ELGEk, berriz, igurikimen baikorrakoak eskaini zituen eta munduko hazkunde tasak eguneratu ditu %2,9an 2016rako eta %3,3an 2017rako. Ekonomiaren bizitasuna, bereziki, garapen bidean dauden herrialdeetatik etorriko da, eszenategi horretan prezioen mailakako gehikuntza, tentsio geopolitikoaren desagerpena eta Txinako hazkundearen berregitura daudela. Ekonomia aurreratuetan, gehikuntza moteleko joerak bere horretan jarraituko du, hazkundea bultzatu duten faktoreak poliki-poliki desagertuko diren bitartean.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Munduko ekonomia	3,0	2,5	2,8	1,9	2,5	2,8
AEB	2,6	1,6	2,3	0,1	1,3	2,4
Kanada	0,9	1,3	1,9	1,1	1,5	2,0
Japonia	1,2	0,7	1,0	0,8	-0,2	0,5
Eurogunea	1,9	1,6	1,4	0,0	0,2	1,3
Europar Batasuna	2,3	1,8	1,5	0,1	0,3	1,5
Alemania	1,7	1,8	1,3	0,3	0,4	1,5
Espainia	3,2	3,2	2,3	-0,5	-0,3	1,4
Frantzia	1,2	1,2	1,2	0,0	0,2	1,2
Herbehereak	2,0	2,0	1,7	0,6	0,3	1,2
Italia	0,7	0,8	0,7	0,1	-0,1	0,9
Erresuma Batua	2,2	2,0	1,3	0,0	0,7	2,5
Asia eta Ozeano Barea	4,9	4,7	4,6	1,6	1,7	2,1
Ekialdeko Europa	0,7	1,5	2,3	7,6	5,0	4,8
Amerika Latinoa	0,2	-0,4	2,1	10,3	13,5	9,4

Iturria: Consensus Forecast (2016ko abendua).

Gaur eguneko eszenategi makroekonomikoaren gainean dauden arriskuak areagotu dira eta etorkizunean ekonomia hazkundearen beheranzko zuzenketak ekar ditzakete. Arrisku horiek azalerraten ari diren herrialdeetan zein ekonomia aurreratuetan gauzatu daitezke. Erresuma

Batuko erreferendumak, Europar Batasunetik irteteko hasiera markatu baitu, eremuaren gaineko ziurgabetasuna nabarmen handitu du. AEBetako moneta politikaren normaltzeak eta Txinako doikuntza ekonomikoaz dauden zalantzek nazioarteko igurikiminetara galdera-ikur handiak ekarri dituzte.

Consensus Forecasten arabera, AEBetako ekonomia %1,6aren inguruan haziko da 2016an eta %2,3ra bizkortuko du tasa 2017an. Bertako ekonomia azkar haziko dela aurreikusten da, behin dolarraren balio irabaziaren eragina desagertuko denean eta pizgarri fiskalek hazkundera bultzatuko dutenean. Politika fiskal hedakorra espero da, administrazioaren gastua eta inbertsioa haziko direlako, zergak murriztuko diren bitartean. Beste aldetik, enplegua sortzen jarraituko dute eta soldatak igoko dira. Horiek barne eskaria sendotuko dute, kanpo eskariaren ahultasuna konpentsatuz.

Eurogunearen hazkunde tasa motela behin eta berriro agertzen da ekonomia aurreikuspenen berrikusketetan. Consensus Forecastek Euroguneko hazkundeaz aurkeztu dituen azken aurreikuspenek %1,6ko gehikuntza ezarri dute 2016rako eta %1,4, berriz, 2017rako. ELGEk, bere aldetik, hazkunde neurritsua eta ahultasuneko alderdi batzuekin aurreikusi du. Erakunde horrek %1,7an kokatu du 2016ko tasa eta %1,6an hurrengo urterakoa. Barne eskariak osagai pribatuak nola haziko diren ikusiko du, enplegu sorrerak kontsumoa bultzatuko duela eta inbertsioak eraikuntzaren narriadurako epealdi luzeari amaiera emango diola. Kanpo eskariak irudi geldia eskainiko du munduko merkataritzaren mugimendu gutxiarengatik eta Erresuma Batura esportatutakoaren jaitsierarengatik, libera esterlinaren balio galeraren ondorioz. Brexitek Euroguneko ekonomian izan dezakeen eraginak ziurgabetasun handia sortu du Europako aurreikuspenetan. Erresuma Batua EBtik irtetearen benetako eragina irteera horren negoziazioaren emaitzetan hautemango da.

Espanian, hazkunde aurreikuspenen 2016rako batez bestekoa %3,2an kokatu da orain. Datorren urterako, aldakuntza tasa zertxobait leunduko da, %2,3an kokatu arte, Consensus Forecasten arabera. Funcasen panelaren batez bestekoa %2,4an kokatu du 2017rako hazkundera. Ekonomiaren bultzagile nagusia barne eskaria izango dela espero da, baina nolabaiteko moteltzea gauzatuko da 2017an zehar. Prezioek eta interes tasek izango duten igoerak eskaria apalduko du. Kanpo arloaren ekarpena txikia izango da, baina positiboa. Hiruhilekoka aurreikusten den bilakaeraren arabera, moteltze handiena 2017ko lehen sei hilekoan gertatuko da.

Lan merkatuaren aldagaiek bilakaera positiboa aurkeztuko dute datozen hiruhilekoetan eta gorantz berrikusi dira. Izan ere, enpleguaren bilakaeraz, Funcasen panelak, batez beste, %2,8ko gehikuntza ezarri du 2016rako eta %2,1koa, berriz, 2017rako. Beste aldetik,

langabezia tasa beherantz zuzendu da eta 2016an tasa hori %19,7an kokatuko dela aurreikusten da, hurrengo urtean %18,2ra jaisteko.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016		2017				2017
	IV	2016	I	II	III	IV	
BPG	2,5	3,1	2,0	1,9	2,1	2,3	2,1
Kontsumo pribatua	2,5	3,1	1,9	1,8	2,0	2,1	2,0
Kontsumo publikoa	1,2	1,2	1,0	1,4	1,5	1,4	1,4
Kap. finkoaren eraketa gordina	3,3	3,9	3,0	3,0	3,6	4,3	3,5
- Inbertsioa ekipamenduan	4,5	6,1	3,7	3,0	3,3	4,2	3,5
- Inbertsioa landutako aktibotan	8,2	3,9	10,9	12,4	11,2	9,5	11,0
- Inbertsioa eraikuntzan	2,5	2,5	2,4	2,7	3,3	3,8	3,1
Barne eskaria	2,2	2,9	1,8	1,9	2,2	2,5	2,1
Esportazioak	5,9	6,1	5,4	4,6	4,5	4,7	4,8
BPG	5,2	5,7	4,9	5,1	5,3	5,6	5,2

Iturria: CEPREDE.

Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoen eta eskuragarri dauden gainontzeko koiuntura adierazleen informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak zertxobait aldatu du EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa 2016 eta 2017 urteetarako. Hala 2016rako nola 2017rako hamarren bat igo du aurreikuspena eta orain urte osoko batez besteko tasak %3,0an 2016an eta %2,3an hurrengo urtean kokatu dira.

EAEko ekonomiaren hazkundera ere barne eskarian oinarrituko da. Osagai horrek 3,0 puntuko ekarpen positiboa egingo dio BPGaren hazkunderari 2016an eta 2,3 puntukoa, berriz, 2017an. Familiak kontsumoan egiten duten gastuaren igoera lan merkatuaren hobekuntzan eta errenta erabilgarriaren hazkunderan, inflazio apalari esker, oinarrituko da. Enpresen inbertsioak ere nabarrituko ditu lehengaien prezio apalak, euroaren balio galera eta soldaten portaera neurritsua. Izan ere, barne eskariak bere hedatzea finkatuko du, hazkunde tasa esanguratsuak bilduz. Beste aldetik, kanpo eskariak EAEko barne produktu gordinaren hazkunderari egingo dion ekarpena ez da oso handia izango oraingoan ere.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak	2016		2017				2017
	IV	2016	I	II	III	IV	
BPG	2,8	3,0	2,4	2,2	2,2	2,4	2,3
Azken kontsumoa	2,5	2,9	2,2	1,8	2,0	2,1	2,0
Kontsumo pribatua	2,8	3,1	2,4	2,0	2,2	2,4	2,3
Kontsumo publikoa	1,0	1,7	1,2	1,1	1,1	1,0	1,1
Kapital eraketa gordina	2,9	3,3	2,6	2,4	2,8	3,2	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	3,0	2,4	2,0	2,2	2,5	2,3
Kanpo saldoaren ekarpena	0,1	0,0	0,0	0,2	0,0	-0,1	0,0
Lehen arloa	4,3	4,5	0,1	2,0	-4,1	-6,2	-2,1
Industria eta energia	2,5	3,2	2,1	2,0	2,5	2,8	2,3
Eraikuntza	1,5	1,5	1,2	1,2	1,8	2,3	1,6
Zerbitzuak	2,9	3,1	2,6	2,4	2,3	2,3	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	3,0	2,4	2,2	2,3	2,4	2,3
Ekoizkinen gaineko zergak	2,7	3,0	2,2	2,0	2,0	2,1	2,1
BPGaren deflatoarea	0,6	0,3	0,8	1,1	1,3	1,4	1,2
Enplegua	1,8	1,8	1,6	1,6	1,7	1,7	1,7
Langabezia tasa	12,4	13,3	12,6	12,4	12,2	12,0	12,3

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.

Eskaintzari dagokionez, oraingo aurreikuspenak zehazten du jarduera adar guztiek hazkunde tasa positiboak eskuratuko dituztela. Salbuespen bakarra lehen arloa izango da, 2017ko azken hiruhilekoetan agian ekarpen negatiboa egingo diolako EAEko balio erantsi gordinari. Urteko batez bestekoa, industriaren aldakuntza tasa %3,2an kokatuko da 2016an eta %2,3an, berriz, 2017an. Eraikuntzak dagoeneko atzean utzi du narriadura ibilbidea eta hazkunde moteleko norabidea erakutsiko du aurreikusi den epealdi osoan. Zerbitzuak, industriarekin batera, EAEko ekonomiaren adar dinamikoena izango dira eta beren hazkundera garrantzitsua izango da datozen hiruhilekoetan ere.

Lan merkatuaren aldagaiez egin den aurreikuspen berriak enpleguaren sorrera %1,8an kokatu du 2016an eta %1,7an, berriz, hurrengo urtean. Beste aldetik, langabezia tasa %13,3ra jaitsiko dela 2016an kalkulatu da, 2017koa ere beherantz zuzendu delarik, urteko batez bestekoa %12,3an kokatu arte.